

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

DNA Bankuari esker, San Kristobaleko gotorlekuan hildako 36ko biktima bat identifikatu da

Identifikazio berriarekin, jada 22 pertsona entregatu zaizkie haien familiei Nafarroako Gobernuaren Deshobiratze Planaren esparruan

Astelehena, 2019.eko martxoak 4

Nafarroako Gobernuak Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiaren bidez sortutako DNA Bankuari esker, 1936ko kolpe militarreko biktima berri bat identifikatu ahal izan da, Berriobeitiko Oteiza hilerriko hobitik ateratakoa 2010. urtean. DNA laginek zehaztu ahal izan dute gorpuzkinak Agustin de Lucas Sanchezenak direla; hau da, 1938ko urtarrilaren 31n San Kristobaleko Gotorlekuko presondegian hildako eta Oteizako hilerrian lurperatutako segoviar presoarenak.



1936ko kolpeko biktimaren gorpuzkinak deshobiratzen.

2010. urtean, Aranzadi Zientzia Elkarteak, "Los 5 de la Nava" elkarteak eskatuta, Ezkabako presoen prospekzioak eta deshobiratzeak burutu zituen inguruko hainbat hilerrian. Horietako bat Berriobeitiko Oteizakoa izan zen, identifikatzerik izan ez ziren bi gizonen gorpuzkinak atera baitzituzten.

Agustín de Lucas Robledo de Chavelakoa zen (Madril) eta Nava de la Asunciónen (Segovia) bizi zen; bertan, trenbideko faktore bezala egiten zuen lan. Kolpe militarren ondoren, atxilotu egin zuten, kondenatu eta San Kristobaleko Gotorlekuko presondegira eraman zuten 1937ko abuztuaren 18an; han egon zen harik eta hil arte. Beste hainbaten kasuan bezala, leku hartako bizi-baldintza izugarriek haren osasuna hondatu zuten, eta sei hilabete baino lehenago hil egin zen. Segoviako 330 preso egon ziren Ezkaban, 17 gaixotasunez hil ziren eta beste 21 erailak edo hilak izan ziren 1938ko maiatzaren 22ko ihesaldiaren ondoren.

184 espediente eta 22 identifikazio

Identifikazio hau Nafarroako Gobernuak DNA Bankuaren bitartez orain arte egindako lanean kokatzen da. Bankua 2016an sortu zen, eta Nasertic enpresa publikoak kudeatzen du. Denbora honetan zehar, 184 espediente ireki dira, eta 21 pertsonaren gorpuzkinak entregatu ahal izan zaizkie haien familiei; kasu berri honekin 22. Identifikatzeko lanak

konplexuak dira eta batzuetan bidera ezinak hezurak degradatuta egoteagatik edo emaile egokirik ez izateagatik, baina erreparazio-prozesuei amaiera emateko bidea dira, gorputzak familiei entregatuta.

Legegintzaldi honetan, guztira 84 gorputz berreskuratu dira 19 deshobiratzetan. Huts egindako beste prospekzio batzuk ere egin dira, baina hainbat kasutan oso garrantzitsuak izan dira aurkitzeko eta ondoren deshobiratzeko.